



GURASOENTZAT/TUTOREENTZAT AHOLKUAK

Zure alaba/semea kanpaldiaren prestaketan nahasi

Behar dena erosten, eramango dituen gauzak markatzen eta horrelakoak egiten lagundu dezake seme-alabak kanpaldira hobeto egokituz joateko.

Balio handiko ezer

Balio asko duen ezer ez eramatea gomendatzen dugu ezta estropeatu ezin den gauza berririk. Hauek apurtu, zikindu edo galdu daitezke eta pena zango litzateke honegaitik momentu txar bat pasatzea.

Dirua

Ez dute druruk eraman behar baina eramatekotan 10 € baino gehiago ez eramatea eskertzen dugu. Ibilaldi bat egingo dugu Puente de Yera eta han, dirua ekarri badute, zerbait erosteko edo etxera deitzeko aukera emango diegu.

Dena marka ezazu

Gauza guztiei izena jarri mesedez. Zerbait galtzen denean zeinena den zer jakitea erreztuko digu. Hortzak garbitzeko zepiloa, toalla, barneko arropak, linterna, kantimplora... guztia markatu mesedez. Ahal bada, izen abizenarekin.

Zorriak

Zuen seme-alabak zorriek ez dituela ziurtatu. Taldeka egingo dute lo kanpaina dendetan eta oso erraz kontagiatzen dira. Oso ezatsegina da zorrirentzako tratamendua eta denontzako hobe izango da. Hilea motza ekartzeak nahiko ostopatzen du kutsadura.

Telefono mugikorrik ez

Mesedez. Ez dute telefono mugikorrik behar. Gainera ez dute kargatzeko aukerarik izango. Tresna hauek bakartzea sustatzen dute eta lagunak egitea oztopatzen du.

Kanpamenduarekin harremanak

Larrialdietarako telefono bat egongo da beti erabilgarri kanpamenduan. Telefono hau premiazkoak ez diren deiekin ez okupatzea eskatzen dizuegu. Facebook eta Twitter erabiliko ditugu kanpaldiaren jarraipena egin dezazuen argazkiak eta komentarioak jarriz. Posta arrunta erabiltzea gomendatzen dugu. Gainera Puente de Yera izango dute deitzeko aukera nahi izan ez gero.

Ez ipod, PSP ezta kamara digitalak edo antzekoak

Lehen esan bezala, tresna mota hauek bakartzea sustatzen dute eta ez dira kanpaldira joaten "makinita" batekin ibiltzeko, lagunak egin, naturaz gozatu eta beste kideekin jolasteko baizik.

Kontuz

Okerrera eraman dezaketean "joan zaitez eta, ez bazaizu gustatzen, dei nazazu eta zure bila joango naiz" motako esaldiak ekidin ditzagun. Batzutan, hauek haurraren eta beste partaideen arteko erlazioan eragiten baitute, bere guraso/tutorekin etxera itzultzeko bideak bilatuz.

Nezeser

Zitada aurkako zerbait nezeserrean eramatea gomendatzen dugu. Baita ere eguzkitako krema (uretan irauten duenetako bat).

Posta

Guraso/tutoreen posta jasotzea ilusio pila egiten die eta pilak kargatzeko forma ona da. Kanpaldi hasieran (edo bi egun hasi baino lehen) bidali garaiz iristeko. Behin baino gehiagotan aurreko txandako norbaitentzat zen gutunak jaso ditugu.



Motxila egiterakoan

Zuen sema-alaba motxila egiterakoan bertan egotea oso garrantzitsua da, eta motxila egiten laguntzen badu, hobe. Bere gauzak non dauden, nolakoak diren eta zenbat diren ikasiko du, kanpaldiko egunerokoan hobe moldatuz da eta gauza gutxiago galduz.

Motxilan zer eraman

- Lehen bazkarirako janaria
- Lo egiteko sakuak
- Esterila isolatzailea
- 1 Eguneko motxila bat
- Kantina poltsa. Plater sakona, mahai tresnak, edalontzia (metalezkoak ahal bada)
- Linterna pilakin
- 1 Kantimplora (opakua)
- Nezeser (hortzetako eskuila, txanpua, pasta, eguzkitako krema)
- Mendiko botak (estrenatuak)
- Errekako txankletak
- Zapatillak
- 1 Eskuoihal
- Barneko arropa (eguneko aldagarri bat)
- Eguneko kamiseta bat (horietako bat, txuria)
- 2 Bainujantzi
- 2 Jertse
- Beroki bat
- Zira bat
- Pijama

8 egun

- 3 galtza motza
- 2 galtza luze

12 egun

- 4 galtza motza
- 3 galtza luze

Aukeran

- Sobreak etxko helbidea eta sigiluarekin
- Jostatzeko kartak
- Pelutxe bat
- Erabilera anitzeko labana TXIKIA
- Erabili eta botatzeko argazki kamera
- Eltxoak uxatzeko produktua
- Sendagaiak (behar baditu)
- Frisbee
- Iparorratza, prismatikoak, lupa
- Ikastolako errepasso koadernoak
- 10 euro
- ...

Ez dute txapela eraman behar guk oparituko bait diegu.

Galdutako gauzak

Txanda bakoitzaren bukaeran galdutako gauzak itzuliko ditugu. Itzuli baino lehen banatuko ditugu eta Donostira itzultzerakoan (guraso/tutore aurrean) berriz. Ala ere zerbait falta bazaizue, egun bat jarriko dugu galdutakoen bila lokalera etortzeko. Egun horretan banatzen ez dena, ezingo da berreskuratu.

Belarretan Aisialdian Hezituz Elkartea ez da udalekutan galdutako gauzez arduratuko. Ezer ez galtzeko ahal dugun guztia egingo dugu.